

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ALONSOTEGI ERAIKIZ, SA-RI BURUZKOA - 2010**

---

2014ko urtarrilaren 20an Alonsotegiko Udalbatzak Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari Alonsotegi Eraikiz, SAU udal sozietate publikoaren gaineko auditoria egiteko eskatu zion. Gainera, eskari honen aurrean, Bizkaiko Batzar Nagusiek Epaitegiari eskatu zioten Sozietatearen fiskalizazio lana 2014ko ekitaldirako Fiskalizazio Planaren baitan barne har zezala. Berebat, 2014ko urriaren 21ean Eusko Legebiltzarraren Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak onartu zuen Epaitegiari sozietatearen fiskalizazio lana, lehenetsunez eta 2015 amaitu aurretik gauzatuko zela bermatuz egiteko eskatzea

Eskari hauei erantzun emanez, joan den abenduaren 22an Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen Alonsotegi Eraikiz, SAUren 2010eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena.

Epaitegiaren iritzira, Sozietateak hainbat ez-betetzereen ondorioz ez du bete 2010eko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia; ez-betetze horiek lursailen 2 salmentari eta administrazioko kontratazioari dagozkio; baita, horretarako eskumena duten Udaleko zerbitzuek 2006az geroztik kontrol ekonomikorik ez egin izanari ere.

Lursailen salmentetako batean espedienteak ez du gauzatutako lehiaketari buruzko dokumentaziorik jasotzen. Bigarrenari dagokionez, beste zenbait ez-betetzez gain esaten da lursailak zuten tasazioaz beheiti esleitu zirela eta lizitazioari eman zitzaion publikotasuna prentsan egindako iragarki batera lerratu zela. Horrezaz gain, lizitaturiko lursailen zati bat ez zen sozietatearena eta beste batzuk, berriz, esleipenaren unean, Osakidetzari lagata zeuden.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, Txostenak adierazi du hainbat zerbitzu 2 kontseilarirekin loturiko enprekin kontratatu zirela eta horietako zenbait publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe esleitu zirela. Halaber, Madinabeitia Doktoarearen Plazako lanen espedienteak ez du esleipena justifikatuko duen txosten teknikoa jasotzen eta futbol zelai berriaren eta aldagelen obraren espedienteen azpimarratzekoa da obrek hasiera batean esleitu ziren kopuruarekiko izan zuen azken kostuaren gehitzea.

Epaitegiaren iritzira, azaleratu diren hainbat salbuespenen eraginaren ondorioz eta Sozietatearen jabetzako 2 eraikinen egikaritze balioari dagokionez dagoen zalantza dela eta, Alonsotegi Eraikiz, SAU Sozietate Publikoaren 2010eko abenduaren 31ko Egoera Balantzeak ez du data horretako ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena ematen, era honetako egoera finantzario bati ezargarria zaion finantza informazioko arautegi esparruari jarraiki, eta zehatzago esanda, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideei jarraiki.

Epaitegiak azaleratu dituen salbuespenak, batik bat, izakinen gehiegizko balorazioei dagozkie, funts propioak 4,1 milioi euroan eta Sozietatearen zorrak 2,6 milioi euroan murriztea eragingo luketenak.